

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

177

EBAZPENA, 2018ko abenduaren 20koa, Ingurumeneko sailburuordearena, zeinen bidez ebazten baita urriaren 27ko 202/2015 Dekretuan 2018ko ekitaldirako aurreikusitako diru-laguntzen deialdia. Dekretuak ingurumena babesteko inbertsioak egiteko diru-laguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen ditu.

Ikusirik Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2018ko ekainaren 6ko Aginduaren bitartez urriaren 27ko 202/2015 Dekretuan aurreikusitako diru-laguntzen deialdia egin zela 2018ko ekitaldirako. Dekretuak ingurumena babesteko inbertsioak egiteko diru-laguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen ditu.

Ikusirik 2018ko uztailaren 13an amaitu egin zela eskaerak aurkezteko epea, eta Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzan 61 eskaera jaso ditugula guztira (41 prozedura arrunterako eta 20 eskaera prozesu errazturako), urriaren 27ko 202/2015 Dekretuaren 4. artikuluan eta 2018ko ekainaren 6ko Aginduaren 4. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Kontuan harturik urriaren 27ko 202/2015 Dekretuaren 16. artikuluen arabera berariaz osatutako Balorazio Epaimahaiak dagokion ebazpen-proposamena egin duela, aurrekontuaren mugekin bat etorriz. Proposamenean zehaztuta daude diru-laguntza eskuratu dezaketen egitasmoak, aipaturiko dekretua betez, bai eta diru-laguntzaren zenbatekoa, eta, halaber, ezetsitako eskaerak eta ezesteko arrazoiak.

Kontuan harturik Ingurumeneko sailburuordeak duela eskumena eman beharreko diru-laguntzen onuradunak eta zenbatekoak behin betiko zehazteko, aipatutako urriaren 27ko 202/2015 Dekretuaren 16. artikuluen arabera.

Ikusirik urriaren 27ko 202/2015 Dekretua, enpresei ingurumena babestera bideratutako inbertsioak egiteko diru-laguntzak emateko baldintzak arautzen dituen; Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2018ko ekainaren 6ko Agindua, zeinaren bidez 2018ko ekitaldirako urriaren 27ko 202/2015 Dekretuan aurreikusitako diru-laguntzen deialdia egiten den; apirilaren 11ko 77/2017 Dekretua, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena, eta oro har aplikatzekoa den gainerako araudia, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen honetako I. eta III. eranskinetan jasotako enpresei diru-laguntzak ematea, bertan jasotzen diren proiektuetarako eta bertan adierazitako zenbatekoetan.

Aipatutako diru-laguntzak eskatutako inbertsioan diruz lagundu daitezkeen gastu garbien ehuneko zehatz bat dira.

Bigarrena.– Ebazpen honetako II. eta IV. eranskinetan adierazitako enpresei eskatu dituzten diru-laguntzak ezestea, bertan zehazten diren arrazoiengatik.

Hirugarrena.– Ebazpen honen V. eranskinean, ezetsitako diru-laguntza eskaeren zerrenda argitaratzea.

Laugarrena.– Diru-laguntza jaso ahal izateko, onuradunak diruz lagundutako inbertsioa gauzatu duela eta inbertsioaren kostua egiaztatu beharko ditu, agirien bidez.

Bosgarrena.– Onuradunek urriaren 27ko 202/2015 Dekretuaren 20. artikuluan onuradunentzat ezartzen diren gainerako betebeharrak ere bete beharko dituzte.

Seigarrena.– Europako Eskualde Garapenerako Funtsak ko-finantzatzen ditu diru-laguntzok, Feder-ak lagundutako kopuruaren % 50 ematen du diru-laguntzaren onuraduna enpresa txikia edo ertaina izanez gero. Hortaz, Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1303/2013 Araudiak xedatutakoaren eraginpean daude diru-laguntzok, eta baita Feder-aren ko-finantzazioaren eraginpean ere (ekainaren 6ko Arauaren I. eranskina). Onuradunak Estatuko eta Europako Erkidegoko legedia bete beharko du kontrol, erantzukizun, erregimen zigortzaile eta ez-betetze kontuetan, eta halaber, urriaren 27ko 202/2015 Dekretuaren 20. artikuluan ezarritako gainerako betebeharrak ere, non ingurumena babesteko inbertsioak egiteko enpresei emandako diru-laguntzak arautzen baitziren.

Burutuko diren diruz lagundutako jardun guztien informazio eta komunikazio neurri guztietan aipatu egin beharko da Feder-aren bidezko Europar Batasunaren ko-finantzazioa, ekainaren 6ko Arauaren II. eranskinari jarraikiz.

Zazpigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, diru-laguntzak emateko prozedura orotan egon behar duen publikotasun-printzipioa betetzeko.

Zortzigarrena.– Ebazpen honek ez du administrazio-bidea agortzen; horrenbestez, interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkez diezaiokete Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten denetik zenbatzen hasita, horrela baitago xedatuta eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko abenduaren 20a.

Ingurumeneko sailburuordea,
MARIA ELENA MORENO ZALDIBAR.

2019ko urtarrilaren 14a, astelehena

I. ERANSKINA
 PROZEDURA ARRUNTAREN BARRUAN DIRUZ LAGUNDUTAKO PROIEKTUAK

Expediente zk.	Titular eskatzailea	ETE	Proiektua	Inbertsio garbia (€)	Diru-laguntzaren zenbatekoa
002-PROT-2018	Funeraria Oyarbide, SL	Txikia	Errausketa-laberako arazketa-sistema instalatzea.	220.697,35	41.004,61
004-PROT-2018	Indumetal Recycling, SA	Ertaina	Ingurune dentsuetoetako tratamendurako linea berria.	915.379,40	120.000,00
006-PROT-2018	Papelera del Oria, SA	Ertaina	Papelera del Oria, S.A. ren araztegia birmoldatzea – I. FASEA.	650.000,00	23.903,12
007-PROT-2018	Husillos Ipiranga, SL	Ertaina	Barne zurrumbiloaren bidezko CNC Leistriz LWN hariztagailua, lehorreko mekanizaziorako.	534.055,00	111.231,47
008-PROT-2018	Ampo, S Coop.	Handia	TIG soldadura-zelulan keak xurgatu eta iragazteko makinak instalatzea.	75.138,00	26.235,91
009-PROT-2018	Conservas Dentici, SL	Txikia	Hondakin-uren tratamendua.	135.936,00	24.263,36
010-PROT-2018	Manuel Garcia Mendoza, SA	Txikia	Usaingabetze-sistemak.	662.580,00	120.000,00
011-PROT-2018	Funeraria La Auxiliadora, SL	Ertaina	Gasen tratamendurako sistema, Elgoibar Tanatorioko errausketa-laberako.	248.950,00	41.069,81
013-PROT-2018	Tanatorio Armentia, SL	Handia	Emisioen arazketa-sistema ezarritz giro-airaren kalitatea hobetzea, Gasteizko tanatorioko errausketa-instalaziorako.	270.088,00	25.822,95
014-PROT-2018	Papel Aralar, SA	Handia	Papel Aralar, S.A. ren hondakin-uren kudeaketa eta tratamendurako sistema hobetzea.	1.142.974,00	116.201,37
015-PROT-2018	Taladros Especiales, SL	Txikia	Txiribiletako olio-hondakinak biltzeko eta ondorik birzikiltzeko birringailua eta zentrifugagailua.	16.810,00	6.366,32
016-PROT-2018	Ugarteburu, SA	Ertaina	Letoi-txiribiak birrindu eta zentrifugatzea.	220.577,00	93.603,55
017-PROT-2018	Ugarteburu, SA	Ertaina	Dürr EcoCompact 550 teknologiaren bidez altzairu herdoilgaitzeko piezak garbitu eta ikuztea, hondakin gisa olio erabilia sortuz.	140.500,00	52.430,19
018-PROT-2018	Belako Lanak, SLU	Txikia	EEHak baliaraztea neurria, VALDEME.	335.572,00	84.081,98
020-PROT-2018	Arania, SA	Handia	Ijezketa-treko ihes-gasen emisioak zeharo ezabatzeko iragazte-sistema.	144.285,23	38.011,43
021-PROT-2018	Schaeffler Iberia, SL	Handia	Ur birziklatuaren kalitatea hobetzeko proiektua.	36.195,00	10.195,08
023-PROT-2018	Schaeffler Iberia, SL	Handia	'0 isuri' proiektua.	514.905,45	120.000,00
024-PROT-2018	Técnicas Hidráulicas, SA	Ertaina	Lehorreko iragazte-sistema.	12.427,00	3.861,79
026-PROT-2018	Metallo Spain, SL	Handia	Oxidazio katalitikoaren instalazioa.	1.633.000,00	120.000,00

2019ko urtarrilaren 14a, astelehena

Espediente zk.	Titular eskatzailea	ETE	Proiektua	Inbertsio garbia (€)	Diru-laguntzaren zenbatekoa
027-PROT-2018	Fresmak, SA	Txikia	Hutseko garbiketa, koiegegabetze eta lehortzerako makina berria, ultrasoinuz aktibatzen dena, eskuratzeko inbertsioa.	113.708,45	45.372,54
029-PROT-2018	Emica Bombas, SL	Txikia	Bizi-zikloa amaitu duten ponpak berriz manufakturatzeako unitate berrirako inbertsioak.	49.094,53	10.116,21
030-PROT-2018	Belgicast Internacional, SL	Handia	Sortzen diren hondakinak iragazi eta gutxitzeko ebaketa-likidoen ekipoa.	36.500,00	4.698,96
031-PROT-2018	Recubrimientos Gasteiz, SL	Mikro	Hondakin-uren tratamendurako instalazioak optimizatzeako egokitzapena, bi ekoizpen-lineen baterako tratamenduaren bidez.	59.300,00	13.947,24
032-PROT-2018	Lauro Ikastola, S Coop.	Ertaina	Pixatoki lehorrak – komunetarako ur-bilketa.	75.594,97	9.330,22
033-PROT-2018	Servicios Especiales, SA	Handia	Emisioak arazteko sistema, Erandioko Servisaren errausketa-laberako.	334.720,00	34.177,03
034-PROT-2018	Decoletaje y Fijacion, SL	Ertaina	Fabrikari sortzen diren hondakin likidoen kopurua gutxitzeko hutseko lurruntze-makina eskuratzeara.	19.503,00	4.645,06
035-PROT-2018	Mecanizado Cremalleras de Dirección, SL	Txikia	Artezketa-lohien tratamendua eta kudeaketa.	28.704,00	13.701,46
036-PROT-2018	Mecanizados Kanter, SA	Txikia	Ebaketa-olioz inpregnaturik dagoen txatar-txirbiak birrintzea eta briketatzea.	54.750,00	18.893,00
037-PROT-2018	Mecanizados Kanter, SA	Txikia	Mekanizazioko lainoak iragaztea.	30.450,00	12.415,27
038-PROT-2018	Engine Power Components Group Europe, SL	Ertaina	Mekanizazioko lainoak iragaztea.	63.550,00	18.519,88
039-PROT-2018	Engine Power Components Group Europe, SL	Ertaina	Artezketa-lohien tratamendua eta kudeaketa, EPC briketatzearen bitartez.	48.723,00	9.888,81
041-PROT-2018	Kliner Profesional, SA	Handia	Hidrokarburuak biodegradatzeko Biodhy 3 poltsa.	25.000,00	5.100,23

2019ko urtarrilaren 14a, astelehena

II. ERANSKINA
 PROZEDURA ARRUNTAREN BARRUAN UKATUTAKO PROIEKTUAK

Espediente zk.	Titular eskatzailea	ETE	Proiektua	Arrazoia
001-PROT-2018	Reydesa Recycling, SL	Handia	Lurren saneamendua.	Ez ditu ekintzen baldintzak betetzen (2018ko ekainaren 6ko Agindua, 1. e eta 4. e artikulua).
003-PROT-2018	Urteaga Quimica, SL	Txikia	Hondakin-uren tratamendurako efektu bakarreko bero-ponpa/lurrungailua instalatzea.	Dokumentazio osatu gabea (202/2015 Dekretua, 10.1.b).
005-PROT-2018	Reydesa Recycling, SL	Handia	Kutsaturik dauden lurren saneamendua Zatitzailea.	Ez ditu ekintzen baldintzak betetzen (2018ko ekainaren 6ko Agindua, 1. e eta 4. e artikulua).
012-PROT-2018	Calera de Alzo, SL	Handia	Biomasa jaso, bahetu, siloratu eta garraiatzeko lantegi berria.	Ez da gutxieneko puntuaziora iritsi (2018ko ekainaren 6ko Agindua, 12.2 artikulua).
019-PROT-2018	Aernnova Aerospace, SA	Handia	Konpresoreen purgen banagailua.	Ez da gutxieneko zenbaterora iritsi (2018ko ekainaren 6ko Agindua, 13.2.b artikulua).
022-PROT-2018	Aernnova Aerospace, SA	Handia	Hidrokarburoen banagailua eta garbiketa-uretan harea kentzeko tanga.	Ez da gutxieneko zenbaterora iritsi (2018ko ekainaren 6ko Agindua, 13.2.b artikulua).
025-PROT-2018	Soraluce Hermanos, SA	Ertaina	ISO 14001 Soraluce.	Dokumentazio osatu gabea (202/2015 Dekretua, 10.1.b).
028-PROT-2018	Nemak Spain, SL	Handia	Substantzia organiko ugari dituzten industria-uren tratamendua.	Ez da gutxieneko puntuaziora iritsi (2018ko ekainaren 6ko Agindua, 12.2 artikulua).

2019ko urtarrilaren 14a, astelehena

III. ERANSKINA
 PROZEDURA ERRAZTUAREN BARRUAN DIRUZ LAGUNDUTAKO PROIEKTUAK

Espediente zk.	Titular eskatzailea	ETE	Proiektua	Inbertsio garbia (€)	Diru-laguntzaren zenbatekoa
001-PROTS-2018	Belako Lanak, SLU	Txikia	EMAS Araudi berriari egokitzea.	3.218,00	1.609,00
002-PROTS-2018	Lubricantes Especiales Lancar, SL	Mikro	Labingarri Biodegradagarri Teknikoa (Lancar L. T.B.).	6.375,00	3.187,50
003-PROTS-2018	A&B Laboratorios de Biotecnología, SAU	Txikia	Garbiketa-produktuetarako Europako Ekoetiketari dagokion ziurtagiria eskuratzea.	12.680,00	4.000,00
004-PROTS-2018	Sode, SA	Handia	Kolagenodun arrautzonizi biodegradagarriak garatzearen bideragarritasun ekonomiko eta teknikoari buruzko azterlana.	10.000,00	5.000,00
005-PROTS-2018	Desguaces Jesus Maria Etxeberria, SL	Mikro	27 ^{taraino} kamioi pneumatikoak askatzeko makina eta R1234 YF aire girutuko gasa erauzteko kita eskuratzea.	7.200,00	3.960,00
008-PROTS-2018	Fagor Ederlan, S Coop.	Handia	Hareagintza alorreko zatiki finak zakuetan siloratzea, ondorik baliarazte aldera.	200.000,00	40.000,00
009-PROTS-2018	Ekolber Ingenieria del Caucho y Plástico de Colageno, SL	Mikro	Produktu biodegradagarri plastikoa ordezkatzeko garapena.	10.000,00	7.000,00
010-PROTS-2018	Burdinola, S Coop.	Ertaina	Ekodiseinuaren arloko UNE-EN ISO 14006 Arauaren ezarpena eta ziurtapena.	7.985,30	3.992,65
011-PROTS-2018	Desguaces Barraka, SL	Mikro	Erabileraz kanpo ibilgailuentzat deskontaminazio azkar eta eraginkorra instalazioa eta makineria funtzionamenduan jartzea - Erabileraz kanpo ibilgailuetako likidoen erauzketarako ekipoa eskuratzeke.	11.560,33	4.000,00
012-PROTS-2018	Urola, S Coop.	Ertaina	Geruza anitzeko ontzien hesitze eta itsaspenari buruzko azterlanak.	10.000,00	6.000,00
013-PROTS-2018	Fuchosa, SL	Ertaina	Hareagintza eta granailaketa alorreko zatiki finen bidalgailua (2. linea).	51.295,00	25.647,50
015-PROTS-2018	Befesa Aluminio, SL	Handia	Hidrogenon aberatsa hondakin-korrontearen aprobetxamenduari buruzko bideragarritasunari buruzko aurreitazko azterlana.	13.369,00	6.684,50
018-PROTS-2018	Sistemas Arquimat, SL	Txikia	Ekodiseinuaren kudeaketa sistemaren ezarpena Arquimat, SL enpresan.	7.800,00	3.900,00
020-PROTS-2018	Precision Casting Bilbao.	Handia	Hondakin likidoen lurrungailua instalatzea.	14.825,00	5.930,00

2019ko urtarrilaren 14a, astelehena

IV. ERANSKINA
PROZEDURA ERRAZTUAREN BARRUAN UKATUTAKO PROIEKTUAK

Espediente-zk.	Titular eskatzailea	ETE	Proiektua	Arrazoia
006-PROTS-2018	Emaus S Coop de Iniciativa Social	Txikia	Berrehabilerako prestatzeko ekipo elektronikoaren prozesatze eta trazabilitatearen kudeaketarako softwarea eskuratu eta ezartzea.	Dokumentazio osatu gabea (202/2015 Dekretua, 10.1.b).
007-PROTS-2018	Viuda de Sainz, SA	Handia	Bi alor jorratzen dituen azterlana: alde batetik, EEHen kudeaketa aurreratuaren arloko negozio eta zerbitzu berrien dibertsifikaziorako aukerei buruzkoa, eta bestetik, ekonomia zirkularri dagozkion paradigma berriak kontuan hartuz, eraikuntza arloko materialen berreskuratze eragingarriari buruzkoa.	Dokumentazio osatu gabea (202/2015 Dekretua, 10.1.b).
014-PROTS-2018	Fundación Oceanográfica de Gipuzkoa.	Txikia	EMAS Ingurumen kudeaketa sistemaren ezarpena / EMAS inskribatzea.	Dokumentazio osatu gabea (202/2015 Dekretua, 10.1.b).
019-PROTS-2018	Bacalaos Azkuene, SAU	Txikia	Gipuzkoan bakailaoa biltegitratzen eta manipulatzeko jarduten zuen enpresa batek lehenago erabiltzen zuen lanleku bati buruzko miaketa-ikerlana.	Ez da xedea (2018ko ekainaren 6ko Agindua, 1. artikulua).

2019ko urtarrilaren 14a, astelehena

V. ERANSKINA
ATZERA EGINDAKO PROIEKTUAK

Espediente zk.	Titular eskatzailea	ETE	Proiektua
016-PROTS-2018	Pekos Mecanizacion SLU	Handia	Txirbil-trinkogailua (JEB-2 800M modeloa) erostea.
040-PROT-2018	Borja Allende Ibaiondo	Txikia	Txirbilien tratamendua eta kudeaketa.